

# BERBAROTARRA 11.zk. 1996ko abendua

## Medikura euskaraz


Berbaroko Sentsibilizazio taldeak kanpaina berri bati ekingo dio 1997an zehar. Helburua, gu guztiok mediku euskalduna eskatzera animatzea izango da.

Eguneroko bizimodua euskalduntzeko ahaleaginean, ezin dugu inondik inora osasun-zerbitzua ahaztu. Zerbitzu publikoa izanik, eskubide osoa daukagu bertan euskaraz jarduteko. Hori da, behintzat, Osakidetzan bertan adierazi digutena.

Beraz, mediku euskalduna nahi duenak badaki zer egin: Osakidetza bezeroen eskaerei erantzuteko

zerbitzura deitu ala bertara zuzendu eta eskatu osasun-zerbitzu egokia eta euskalduna. Zenbat eta eskaera gehiago izan, orduan eta errazago izango zaie Osakidetzakoei gure gogoia betetzea.

Dena den, ziurtatzea falta bada ere, uste dugu Osakidetzako azken oposaketan ondorioz, mediku euskalduna datorkigula Durangora. Ez da ez albiste txarra.




### Loteria jaso dugu

Azkenengo boletinean esandako moduan, aste honetan, hilaren 12an loteriarren dirua jaso dizuegu bankutik. Ez larritu, bulegoan ordaindu duzenoi ez dizuegu berriz ere kobratu eta. Arazoren bat baduzue deitu arin-arin Berbarora eta konponduko dizuegu. Eskerrik asko loteria saltzen lagundu diguzuen guztioi.

### Ipuin labur, bertso paper eta komiki lehiaketaren argitalpena

Seigarrenez egin dugu aurten lehiaketa eta lehenengoz lortu dugu argitalpena. Hemendik aurrera argitalpen horrekin jarraitzea espero dugu. Abenduaren erdialdera aurkeztuko dugu komunikabideen aurrean. Lanaren egileak

honakoak izan dira, Aitor Sarrionandia maketatzailea, Joxe Amantegi ilustratzailea eta Iñaki Barañanori.



# BAGABILTZA BAGABILTZA

**Administrari berria** du-gu aurten ere Berbaron. Aurreko urteetan bezalaxe, Iurretako LH eskolatik ikasle bat etorri zaigu lau bat hilebeteko praktikaldia egitera (abendutik martxora bitartean). Aurten, Gorkari egokitu zaio Berbaroko zereginetan jardutea. Ongi etorri, beraz. **Nafarroako Gobernua-ren enkargua** jaso du Berbarok. Lehen Hezkuntzako ikasleek osasunari buruz erabiliko duten euskarazko liburua Berbarok itzulitakoa izango da.

**Bertsozaleen elkarte** **bazkide kanpaina** egiten ari dela jakingo duzue. Norbanakoak zein elkar-teak egin ahal dira bazkide eta Berbaro Elkarte, bazkide egitea erabaki du Zuzendaritza Batzordeak. **Azokan, urtero legez, Gerediagakoei lagundu diegu** lan larregi izaten dute eta. Gerediagako standean turnoak egin ditugu. Hori aprobetxatuta, geure materiala ere salgai izan dugu stand berean. Kantu

liburua eta liburutxoa, pinak eta Ipuin labor, bertso paper eta komiki lehiaketaren argitalpena izan ditugu salgai eta salmenta onak izan ditugula esan behar. Horrez gain, Berbaro Elkarte zer den azaltzen duten 2000 diptiko banatu ditugu bazkideen beharrez gaude eta. **Olgetan taldeko 2. jaialdia** osapatu zuten Ikastolan pasadan azaroaren 23an. Itzelezko arrakasta izan zuen, 60 bat ume hurbildu ziren.

## Atxekimendu eskariak

Joan den urrian, **Noiz arte? platafomako** ordezkariak Berbarori zuzendu zitzaizkion Mikel Gotzon Alonso eta Iñigo Unzalu durangarrak eta Mikel Guerrero elorriotarra berehala kalera dezaten aldeko sinadura eskatzeko.

Joan den urrian, **Our-daybikoek** eskalatzeko **rokodromoa** aurten egi-

tearen aldeko sinadura eskatu zioten Berbarori, baita protesta-mobilizazioetara deitu ere.

Joan den azaroan, **Senideak** taldeko ordezkariak **euskal presoak etxeratzeko** egin zuten manifestazioaren aldeko atxekimendua eskatu zioten Berbarori.

Guztiei, honako erantzuna

eman die Zuzendaritza Batzordeak: *euskarekin zer ikusi zuzenik ez duten gaietan erabakirik hartzeko ahalmenik eman ez zaigunez, hauek alde batera uztea eta, boletinare berri bazkide guztioi ematea bakoitzak bere irizpedeen arabera erabaki pertsonala har dezan.*

Hemen dituzue txokoko lehenengo 30 bazkideak, izen-abizen, argazki eta guzti. Hala ere, bazkideak guztira 55 dira dagoeneko eta orri honetan agertzen ez direnak hurrengo boletinean ikusiko dituzue. Animatu eta egin zaitez zeu ere txokoko bazkide.



# Guezan Ba!

Zelan gabiz? Gu hemen beti lez, eñ biherdienak eta eztiñak eitten. Denporaz sobran ibili gara eta ikastaro batzuk eittie pentseu dogu, denporie zeozetan pasetako. Pentseu eta eñ. Aste bi baño ariñeu prepareute euki doguz hankapalu ikastaro bat eta ipuin kontalarien beste bat. Oingo ixe entendiduek



garela esan ahal da. Eta hau gitxi bazan, Azokako asterako grafiti ikastaro bat be antolatu dogu. Ikusten dan moduen ez deku gure

# Ieup!

deporie alperrik galtzeko asmorik.

Egun honetan grafitixek eitten ikesteko gogue badekozu eta ez badekozu eitteko hobarik, etorri zaittez guaz arratsalde eder bat pasetan; Montevideoko murala eitten egongo gara. Dena gure kontu, animatu zitez!

Bestalde, kamiseta majo batzuk etarateko asmue deku eta oindik dakizuenez, hasi zeinkie dirue aurrezten urtetan dabienien erosten jueteko. Beste barik hurrengo barte!

## Ekintzen egitaraua

### Azaroaren 23an

Olgetanen aurkezpena egin zen Ikastolan. 60 ume joan ziren.

### Abenduaren 6an

Pinondo Etxean Zantzoa literatur taldearen olerki eta ipuinen errezitala.

### Abenduaren 7an

Graffiti tailerra Montebideo etorbideko horman.

### Abenduaren 7an

ANARI ren kantaldia

Berbaro tabernan, arratsaldeko 8etan.

### HAUR LITERATUR ARETOA

### Abenduaren 6 eta 7an

KUKUBILTXOren

"Behin bazen"

ikuskizuna Ikastolan 12etan eta 6etan.

### Abenduaren 8an

KUKUBILTXO

12`30etan Ikastolan.

### Abenduaren 6tik 8ra

Haur eta gazteen literaturaren erakusketa 10etatik 8etara Ikastolan.

### Abenduaren 9tik 13ra

Haur literatur aretoa Pinondo Etxean eskola orduetan.

### Abenduak 14

Olgetanek tailerrak

### Abenduak 21

Umeen gabonetako parkea. Bilbora irteera.